

BERRI OROKORRAK

2019ko irailaren 13an 1. zenbakia



Euskaraz Bizi!!!!!!

Guraso-eskolak.

Aurten ere, udalaren laguntzaz, gurasoentzako euskara ikasteko klaseak martxan jarriko ditugu. Klaseak, Etumeta Euskaltegian izango dira eta bertako AEK-ko irakasleek emango dituzte. Klaseek honelako bereizgarriak izango dituzte:

- **Astean 2 egunekoak izango dira.**
- **Egunean 2 ordukoak (14:30-16:30)**
- **Arratsaldez** izango dira.
- **100 orduko** ikastaroa izango da **urritik maiatzera.**
- **100 €** ordainduko da ikastaroa.
- **2-16 urteko haurren gurasoentzat**
- **Urriaren 15ean hasiko dira klaseak.**
- **Izena emateko azken eguna, urriaren 4a** izango da.
- **Mailaketa-froga eguna: urriaren 10a, Euskaltegian** izango da **14:30etik 16:30era**
- **Klaseen % 80ra etorri zero**, matrikularen %100eko diru-laguntza emango du Udalak, ikasturte amaieran (Beti ere, Udalaren diru-laguntza deialdiaren arabera).

Izen-emate orria idazkaritzan jaso dezakezue. Bete ondoren, ikastolako Idazkaritzan edo Etumeta-AEK euskaltegian utzi behar duzue.

1.-2019/20 ikasturteari ongi etorria.

Familia agurgarria!

Oporaldia amaituta, erronkaz beteriko ikasturtea hasi dugu!

Ongi etorri, bada, eta aurrera!

2.-2019/20 ikasturteko zerbitzuak eta kuotak.

Ikasturte honetako ikastolako eta zerbitzuetako kuotak jarraian adierazten dizkizuegu. Horien kobrantza **hilaren 16an** egingo da.

* Kooperatibako kuota osagarria eta elkartasun-kutxa.

Udarregi Irakaskuntza Kooperatiba Elkarteak 2019ko maiatzaren 30ean eginiko Batzar Orokorrean onartutakoari jarraituz, 2019/20 ikasturtean Kooperatibako kuota osagarria hileko eta ikasleko **38,00€** izango da. Elkartasun-kutxa, **4,10€** hileko eta familiako. Kuota horiek **12 hilabetez (iraila-abuztua)** kobratzen dira.

* Ikasle-asegurua.

Ikaslearen istripu-asegurua urteko prezioa **15,50 eurokoa** izango da.

Garraioa.

Garraio zerbitzuaren hileko kuota **50,00 eurokoa** (12 hilabetez) izango da. Arduradunak Mari Berasaluze eta Izaskun Huizi izango dira.

Kontuan hartu, kuota erabiltzaile kopuruaren arabera kalkulatzen dela eta erabiltzaile kopurua aldatuko balitz, kuotak ere gorabehera jasango lukeela.

* Iraileko arratsaldeetako zaintza.

Irailean, eskolak goizez diren egunetan, 14:30etik 16:30era zaintza eskaintzen da. Zerbitzuaren kostua **35,00 eurokoa** da eta irailaren 16an egingo da kobrantza errezibo bidez. Begiraleak Idoia Encinas eta Iban Maritxalar dira.

***Goizeko zaintza.**

Goizeko 8:00etatik 9:00etara da zerbitzua. Kuota **16,50 euro hileko** izango da **10 hilabetez**. Bermea ere 16,50 eurokoa izango da eta irailaren 16an kobratuko da. Ikasturtean zehar zerbitzuan baja emanez gero, bermea galdu egingo da. Begiraleak Iban Maritxalar, Idoia Encinas dira eta hirugarrena, zehazteke.

***Jangela.**

Jangelako kuota, bazkaldar-kopurua eta jangelaren erabileraren arabera kalkulatuzen denez, garrantzitsua da zerbitzua erabili behar dutenen **izen-ematea lehenbailehen** egitea. Kuota-mota desberdinen artean aukera dezakezue:

-Egun solteak, hilabete solteak, urritik maiatzera asteko bost egunetan, urritik maiatzera astean 4 egunetan (egunek beti berdinak izan behar dute).

Datuak jaso ondoren, kuotak zenbatekoak izango diren jakinaraziko zaizue.

Gogorarazi nahi dizuegu **zerbitzua erabili ahal izateko, bezperan idazkaritzan jakinarazi behar dela 13:00ak baino lehen.**

Menuen deskontua: urria eta maiatza bitarte egingo da eta onuradun izateko, **bezperan 13:00ak baino lehen idatziz jakinarazi beharko da usurbil@ikastola.eus** helbidera idatziz.

3.-Jangela-zerbitzuaren antolaketa.

Joan den ikasturteko maiatzean **bazkaria** bi txandatan eskaintzearen froga baloratu ondoren, 2019/20 ikasturtean ere **bi txandatan** egitea erabaki da.

Lehenengo txandan HH 3tik LH 2ko ikasleek bazkalduko dute **12:30ean** eta bigarrenean LH 3tik LH 6rako eta DBHko ikasleek, **13:10ean**.

Ikasleek beraien **bazkaltzeko txanda errespetatzea** eskatzen da eta eskolaz kanpoko eguerditako jarduerak horren baitan antolatzea.

2019/20 ikasturtean jangela-zerbitzua kudeatuko duen enpresa berria izango da, Aibak, hain zuzen ere. Hilabete honen amaieran bilera batera deituko zaizue xehetasun guztiak emateko.

4.-Txikien Baxurde Krossa.

Aurten ere, Baxurde Krossean helduek parte hartzeaz gain, gazteek ere korri egiteko aukera izango dute. Horretarako, gurasoek www.rockthesport.com orrian edo Usurbilgo kiroldegian inskribatu ahal izango dituzte: <https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/xiibaxurdekrossa>

ORDUTEGIAK:

10:30ean:Helduak


12:00etan:

Irteera bateratu bat egingo da Benjamin (2009/2010) (8-9 urte) eta Alebin (2007/2008) (10-11 urte) kategoriko umeentzat eta 600 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote, lehen erdia antolakuntzak bideratua izango da eta bigarren erdian beraien erritmora joaten utziko zaie, beti antolakuntzaren begiradapean.

12:10ean:

Irteera bateratu bat egingo da Infantil (2005/2006) (12-13 urte) eta Kadete (2003/2004) (14-15 urte) kategoriko umeentzat eta 1000 metroko zirkuitu bati bira bat emango diote. Beraien erritmora joaten utziko zaie hasieratik, beti antolakuntzaren begiradapean.

*** Eskola-kirolaren legea dela eta, lasterketan eskualdeko edo aldameneko eskualdeetako umeek parte hartu ahal izango dute (Donostialdea, Tolosaldea, Azpeitialdea eta Irunaldea). Animatu!!!



Benjamin/Alebin



Infantil/Kadete

5.-Kilometroak 2019, laguntza eskaera.

Zarautzen, urriaren 6an, Kilometroak 2019 ospatzeko hilabete eskas falta delarik, jaiaren antolakuntzari aurre egin ahal izateko behar den laguntzaile kopurua osatzeko, zuen laguntza eskatzera gatoz.

Ikastoletatik lortu nahi dugun laguntza, honako kopuru hauetan, hiru arlotan banatzen da:

Txosnak	108
Jasangarritasuna	165
Erronka	79

Jakin ezazue, ardura horiek 4 orduko txandak direla eta, beraz, goizean arituz gero, ondoren egun osoa gelditzen dela jaiaz gozatzeko.

Izenak edo jende kopurua emateko zuzendu kmk19gizabaliabideak@zarauzkoikastola.net helbidera.

Aldez aurretik eskertuz, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

OHARRAK ETAPAKA



EZ dago berririk.



1.-Gela-bilerak.

Ikasturte hasierako gela-bilerak egingo ditugu irailaren 24an. Zaintza zerbitzua eskainiko da.

MAILA	EGUNA	ORDUA	NON
HH 4	Irailak 24, asteartea	17:00	Seme/alabaren gelan
HH 5	Irailak 24, asteartea	17:00	Seme/alabaren gelan

2.-Zorriak.

HH 5eko Ikasle batzuegan zorriak somatu ditugu.

Norberak bere haurrekin egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.


Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingariak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Aste bat pasa ondoren tratamendua berri aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



1.-Ikasturte hasierako guraso-bilerak.

Ikasturte hasierarekin batera guraso-bilerak ere bertan ditugu.

MAILA	EGUNA	ORDUA	NON
LH1	Irailak 17, asteartea	17:00	Ikasgelan.
LH2	Irailak 23, astelehena	17:00	Jangelan.
LH3	Irailak 19, osteguna	17:00	Jangelan.
LH4	Irailak 16, astelehena	17:00	Jangelan.
LH5	Irailak 26, osteguna	17:00	Jangelan.
LH6	Irailak 25, asteazkena	17:00	Jangelan.

Jakinarazi nahi dizuegu aurten eskaraz egingo ditugula bilera guztiak. Inork gaztelez azalpenak beharko balitu bileretan, beste irakasle bat egongo da guraso horien zerbitzura itzulpen-lanak egiten.

2.-ZORRIAK

Kurtsoa hasi dugu eta ikasleen etorrerarekin batera, beste laguntxo batzuk ere etorri dira, baina horiek ez dute ikasteko gogo handirik!!


Mesedez, zuen seme alaben buruak begiratu eta, beharrezkoa baldin bada, tratamendua egin!

3.- TELEFONO MUGIKORRA ETA SMARTWATCH ARAUTEGIA IKASTOLAN

- Debehatuta dago telefono mugikor eta smartwatch-en erabilpena ikastolan, jangelan barne.
- Ikastola ordutan itzalita edukiko da, jolas-garaia barne eta ezingo da soinean eraman.
- Irteeretan: Egun edo gaua pasatzeko irteeretan, telefonoaren erabilpena ikastolan arautzen den berbera da.
- Arau hau hautsiz gero (ikastolan edo irteeretan), lehenengo aldiak ikasleari telefonoa kendu egingo zaio, gurasoei deitu eta telefonoa gurasoei itzuliko zaie.
- Bigarren aldiak, telefonoa kenduko zaio, gurasoei deituko zaie eta telefonoa ikasturte bukaeran itzuliko da.
- Ikastolak ez du bere gain hartuko aparatu hauen galera.

4.- IRTENALDIA

Hurrengo astean LH etapako ikasle guztiekin goiz pasa bat egingo dugu, eguna ikasleei zehaztuko diegu eguraldiaren arabera.



Ez dago berririk.